



Izen-abizenak _____

Ikastetxea _____

EUSKARA
MAILA AURRERATUA

ENTZUMENA

JARRAIBIDEAK

IRAUPENA: 45 minutu

- Entzumenak 3 ariketa ditu eta ariketa bakoitzak 5 puntuko balioa.
- 15 puntuko proba da eta gutxienez 9 puntu lortu behar dituzu.
- Entzungai bakoitza bi aldiz entzungo duzu.
- Erantzunak **Erantzun Orrian** idatzi behar dituzu.
- EZ AHAZTU ZURE IZEN-ABIZENAK **ERANTZUN ORRIAN** JARTZEA.

1. ENTZUNGAIA (5 puntu)

Ariketa honetan irratiko bost informazio entzungo dituzu bi aldiz. Esaldiak dituzu alde batetik eta entzungo duzun informazioa bestetik. Zuk parekatu egin behar dituzu adibidean (0 zenbakia) bezala. Bi esaldi sobran daude.

ESALDIAK

- A. Bilboko Udala kexu dago jendeak alokairuko etxebizitzak zaintzen ez dituelako.
- B. Bizkaian bizirik eduki nahi dute gerra zibilean gertatutakoa.
- C. Bizkaiko Diputazioak Carlos Saurari eman dio Gernikan filme bat egiteko enkargua.
- D. Dibortzioa.**
- E. Erakunde pribatuek Bizkaiko Diputazioaren esku jarri dute *Zerutik sua dator* dokumentala.
- F. Gerra zibila gertatu zeneko Gernika interesatzen zaio C Saura zinema-zuzendariari.
- G. Ingurumena kezka iturria da ardandegi bateko jabeentzat.
- H. Iruzurrari aurre egiteko kontrolak zorrotzuko ditu Bilboko Udalak.
- I. *Ostatu* upategikoak pozik, inoiz ez bezalako uzta jaso dute eta.
- J. Txakolin ekoizpenak kalte egiten dio ingurumenari.
- K. 2011. urtean txakolin ekoizpenak gora egin du, ekoizle kopuruak, berriz, behera.

Informazioa	0	1	2	3	4	5
Esaldia	D					

2. ENTZUNGAIA (5 PUNTU)

Ariketa honetan EITBn Mikel Mindegia aizkolari handiari egin dioten elkarrizketa entzungo duzu 2 aldiz. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenbakia) bezala.

0. Zeini egin diote elkarrizketa?

- a) Aizkolari bati.
- b) Australiar bti.
- c) Pilotari bati.

6. Mindegiak esan du nekez eramango dituztela kategoria txikiagoko aizkolariak ...

- a) aizkolaritzaz ez dakiten lekura; hara txapeldunak baino joaten ez direlako.
- b) Baztanera; han, Baztanen, aizkorarako zaletasuna dagoelako.
- c) Mindegiaren zonaldera; hango jendeak aizkolari onak ezagutzen dituelako.

7. Mindegia Australian ibilia da. Australiako aizkolariak han eta ohituta dauden lanetan...

- a) hemengoak baino hobeak dira.
- b) hemengoak baino txarragoak dira.
- c) hemengoak bezain onak dira.

8. Australiako aizkolariak hona, Euskal Herrira, etortzen direnean...

- a) hemengoak baino gehiago dira.
- b) hemengoak baino gutxiago dira.
- c) hemengoak bezain onak dira, ohituta ez dauden arren.

9. Mindegiaren ustez, etorkizunean bera bezalako aizkolarien mailari eustea/k...

- a) diru kontua baino ez da.
- b) ez da erraza izango.
- c) ez du batere sakrifiziorik eskatzen.

10. Jokoak eta exhibizioak.

- a) Biak gauza bera dira.
- b) Jokoek egiten dituzte aizkolariak.
- c) Mindegiak serioago hartzen ditu exhibizioak jokoak baino.

Galderak	0	6	7	8	9	10
Erantzunak	A					

3. ENTZUNGAIA (5 puntu)

Ariketa honetan Juanjo San Miguel lehendabiziko seiluaz arituko zaigu Euskadi Irratiko erreportaje honetan. Bi aldiz entzungo duzu. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean (0 zenbakia) bezala.

0. Zertaz mintzatu dira?

- a) Informatikaz.
- b) Seiluez**
- c) Txanponnez.

11. Seilua asmatu aitzineko egoera eta ondorengoa.

- a) Posta garraioa normalizatzeko erabakigarria izan zen seiluaren ezarpena.
- b) Posta hartzaile askok ez zuen ordaintzen urrutiko harremanik nahi izaten ez zuelako.
- c) Seilua iristek ahalbidetu zuen ordura arte ezinezkoa zen hartu-eman.

12. Seilua dela eta, etxeoandre bati gertatutakoa.

- a) Etxekoandreak aitortu zion R. Hill-i pobreegia zela seilua ordaintzeko.
- b) Etxekoandreak atsegin hartu zuen Hill-ek eskutitza ordaindu zuenean.
- c) Etxekoandreak ez zuen eskutitza onartu, besteak beste, hutsik zegoelako.

13. Seilua asmatzearen ondorioak. Seiluaren ezaugarriak.

- a) Eragozpenak igorleek izan beharrean hartzaileek izan zituzten.
- b) Seilua asmatzea estatuen eta postarien onerako izan zen.
- c) Seilua asmatzeak ez zuen postarien garraioa hobetu.

14. Lehen seilua 1840. urtean sortu zen.

- a) Salgai jarri zutenean, erantzun skasa izan zuen herritarrengandik.
- b) Seilua nongoa zen adierazten zuen herriaren izena ez zegoen idatzita.
- c) Victoria erreginarenean aurpegia ez zuten jarri nahi izan.

15. Seiluaren eta beste sistemen garrantzia.

- a) Seilua asmatu baino lehen ere, bazen hartu-emanak bideratzeko sistema ugari.
- b) Seilua asmatzeak berebiziko garrantzia izan zuen hartu-emanetan.
- c) Seiluak ez bezala, iraultza eragin dute telefonoak eta posta elektronikoak.

Galderak	0	11	12	13	14	15
Erantzunak	B					